

Sebastian Aranguren Ulazia

*Getaria,
Gipuzkoa
(1922-2013)*

Aurkibidea

Biografia



Getarian jaioa, bertan bizi izan da beti. Gurasoak biak Askizu inguruko baserrietakoak zituen eta eskolara Askizura joaten zen. Ume-umetatik arrantzan aritu izan da, beti Getariako ontzietan. Hasierako elkarrizketak bere lagun [Paulo Argiberekin](#) batera egin zitzaizkion. Argazkian ezkerrean ageri da.

Zintak

GET-001

• **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa

- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2006-05-01
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

GET-002

- **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2006-05-01
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

GET-006

- **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2006-05-11
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

GET-007

- **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2006-05-11
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

GET-029

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Data:** 2010-09-29
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Kostako herrien berezitasunak

- **Erref:** GET-001/004
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Getariako euskarak antz handiagoa Zarauzkoarekin Zumaiaikoarekin baino. Getariako baserriarrak euskaraz garbiago. Inguruko herri bakoitzak ditu bere berezitasunak euskara aldetik.

2. Hondarribiarrak nagusi bisigutan

- **Erref:** GET-001/005
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:13:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Hondarribiarrak ez ziren bisigutan ibiltzen antzina, "kordakin", beste guztiak bai. Baina azken aldera hondarribiarrak bakarrik, kanaberarekin, eta asko harrapatzen zuten. Kanaberaren balantzeari "xaxiua" esaten zitzaion.

3. Getariarrak "trezekin", Hondarribiarrak geldirik

- **Erref:** GET-001/006
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:13:14. **Bukatu:** 00:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Desberdin arrantzatzen zuten bisigua. Hondarribiarrak geldirik egoten ziren, kanaberarekin. Getariarrak, berriz, tretzak erabiltzen zituzten, distantzia luzetan hedatuz boien bidez. Tretzak lotzeko "txitxak" erabiltzen ziren.

4. Arrastre-ontziek hondoko korala hondatu zuten

- **Erref:** GET-001/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:15:58. **Bukatu:** 00:17:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza
- Natura » Flora

Laburpena:

100 brazako sakoneran korala egoten zen hondoa ("kandelarioak"), meroa, itsas-kabra eta abar ugari egoten zen, baina arrastre-ontziek dena txikitu zuten. 1962 aldera gertatu zen.

5. Bisigutarako urte-sasoia noiz den

- **Erref:** GET-001/009
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:19:28. **Bukatu:** 00:21:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

"Santa Katalina noiz da, bisigutarako goiz da", esaera. Urtarrilaren bukaera arte edo egiten zen. "San Anton besugo a monton". Bisigutarako aparejua, tretza, nola prestatzen zen.

6. Bisigutarako kalen izenak

- **Erref:** GET-001/010
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:

Ordu eta erdiko bidea dago lehen bisigu-kalara. Kalen izenak: "Barrungo Kala", "Praiesu", "Gaztelu" eta "Ixxkote". Batetik bestera ibiltzen ziren.

7. Nola aurkitzen zituzten kalak

- **Erref:** GET-001/011
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:26:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Zenbait zehaztasun tekniko bisigu-arrantzaz. Ez da oso ondo entzuten.

8. Arrastre-ontziek galdu zuten bisigua

- **Erref:** GET-001/013
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:28:05. **Bukatu:** 00:29:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Natura » Flora

Laburpena:

Arrastre-ontziek eta pelagikoek galdu zituzten bisigua eta abar. Lehenago ezin zuten koral-lekuetan arrantzatu, baina sareei arrabolak jarri zizkieten eta koral guztia desegin zuten. Bestela oraindik iraungo zuen arrantza horrek.

9. Adelantuek beste arrantzak ere izorratuko dituzte

- **Erref:** GET-001/014
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:29:11. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Natura » Flora

Laburpena:

Asmazio berriek geratzen diren arrantzak ere izorratuko dituzte. Arrasteroak txarrak, baina pelagikoak okerragoak. Frantsesak hasi omen ziren Eskote puskatzen. Sareekin harrapatzen zuten, arrain asko hilda geratzen zen eta besteak uxatu egiten ziren.

10. Hondarribitarrek ere sarez

- **Erref:** GET-001/015
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:30:50. **Bukatu:** 00:32:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Natura » Flora

Laburpena:

Hondarribitarrek ere sarez harrapatzen zuten. Arrantza mota horrek kalte handia egin zuen. "Sare bolantak" esaten zitzairen. "mailatutakoa" esaten zitzaion sarean mazpilduta geratzen zenari.

11. Arrastre-ontziek uxatu egin dute arraina

- **Erref:** GET-001/016
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:34:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Natura » Flora

Laburpena:

Arrastre-ontziek uxatu egiten zuten bisigua. Aurten berdela ere bai.

12. Amudun kordelak (tretzak) nola botatzen ziren

- **Erref:** GET-001/017
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:34:35. **Bukatu:** 00:36:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Aparaturik ez zegoenez, beste modu batera konpontzen ziren arraina non zegoen jakiteko. "Uraina". Kordelak nola botatzen ziren. Zehaztasun teknikoak.

13. Bisigu zozketa kaian

- **Erref:** GET-001/019
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:40:36. **Bukatu:** 00:41:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Loteak egiten ziren etxera eramateko arrantzaleentzat, eta kaian zozketatzen ziren.

14. Arrain-partiketa marinelen artean

- **Erref:** GET-001/021
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:43:51. **Bukatu:** 00:45:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Loteak egiten ziren: bana marinela bakoitzarentzat. Bisigu bat, kabrarroka, txitxarro... etab. Armadoreari marinela beste lote tokatzen zitzaion. Segun zer kala zen, arrain mota gehiago edo gutxiago.

15. Legatzak gusturik ez harrapatu berrian

- **Erref:** GET-001/023
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:47:20. **Bukatu:** 00:48:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Hasieran harrapatu berrian jaten zuten legatza, baina ez omen zuen batere gusturik, ura bihurtzen zen, eta gero ikasi zuten egun bat lehortzen izaten. Legatz handiak izaten ziren.

16. Bisigu-arrantza eguna nolakoa zen

- **Erref:** GET-001/025
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:48:55. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak

Laburpena:

Goizeko ordu bietan irten Ixkotera, eta arratsaldeko bostak aldera itzuli, normalean. Barrungo Kalara ordu eta erdi, Ixkotera lau. Gaztelura hiru.

17. Bisigu-arrantza gogorra eguraldiatik

- **Erref:** GET-001/026
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:51:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Lan txarra bisigu-arrantza eguraldiatik, neguan egiten baitzen. Egunsentiarekin bat, "alba(ra)ko" hasten ziren lanean.

18. Lehengo marinelak alaiagoak

- **Erref:** GET-001/028
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:53:14. **Bukatu:** 00:53:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak

Laburpena:

"Neguko ogixa irabazi diu" esaten omen zuten mutrikuarrek karnata egiten zutenean. Lehengo marinelak askoz ere alaiagoak omen ziren. Gutxiagorekin konformatzen omen ziren.

19. Patroiak bere sekretuak izaten zituen

- **Erref:** GET-001/030
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:56:58. **Bukatu:** 00:58:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Patroi bakoitzak bere arrantza-sekretuak izaten zituen. Zenbakiak ezagutzen ez zituen marinel baten anekdota.

20. Antxoa karnata onena bisigutarako

- **Erref:** GET-001/031

- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:58:05. **Bukatu:** 00:59:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Antxua erabiltzen da bisigu karnatarako. Lantzoia ere ona da. Una batzuetan gaizki entzuten da denak batera egiten dutelako.

21. Deiadarren bidez abisua marinelei

- **Erref:** GET-001/033
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:59:48. **Bukatu:** 01:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

Ahots indartsua zuen patrioiaren anekdota. Txalupa-mutila ibiltzen zen marinelei itsasorako deitzen.

22. Lexikoa: txalupa-mutil, txotxo, txo...

- **Erref:** GET-001/034
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:01:25. **Bukatu:** 01:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Getarian "txalupa-mutil" esaten zaio, Orion "txotxua", Bermeon "Txo". Txalupa-mutilak errespetua, beldurra, marinelei.

23. 14 urterekin lanean hasi

- **Erref:** GET-002/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

14 urterekin hasten ziren legez itsasoan lanean, baina berez lehenago gehienetan. Partila banatzen zenean mutikoak ere joaten ziren "maxuenera", maisuarengana, armadorearen etxera.

24. Patroi baten esaera zelebrea

- **Erref:** GET-002/003
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Kaxildo armadorea zen eta Jenaro patroia. Arrantza ekartzen zutenean, "Kaxildok hainbeste arrai" esaten zuten, eta tertzak galtzen zituztenean, "Jenarok hainbeste tertzak galdu".

25. Meza entzunda bisigutara

- **Erref:** GET-002/005
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:07:29. **Bukatu:** 00:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

Goizeko 4etan meza entzunda irteten ziren itsasora zenbait egunetan.

26. Barkuen bedeinkazioa

- **Erref:** GET-002/007
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:12:34. **Bukatu:** 00:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

Apaizak gainera igo eta isopoarekin bedeinkatzen zituen barku berriak. Eliza aurretik pasatzerakoan aitaren egin eta txapela kentzen zuten. Irteterakoan "Salbe!" esaten zuen patroiak.

27. Sareei santuen erlikiak zorte ona emateko

- **Erref:** GET-002/009
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:14:42. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

Sareei santuen erlikiak-edo josten zitzairen. Erramu Egunean erramua jartzen zen barkuan.

28. "Poitua" zer den esplikatzen da

- **Erref:** GET-002/011
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:17:24. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>"Poitua" edo "zakurrena" (Orion): 30 arroatik gora antxoa harrapatuz gero, hiru marinelentzat.</p>

29. Alemanen gerra hasi eta arrainarekin dirua egin

- **Erref:** GET-002/013
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:21:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

<p>II. Mundu Gerra hasi zenean hasi ziren dirua ikusten. Sardina kiloak 5 pezeta egiten zuen.</p>

30. Harrapatutako antxoarekin zer egin jakin ez

- **Erref:** GET-002/014
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:21:08. **Bukatu:** 00:23:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

Antxoa asko harrapatu zuten batean Zumaiako Beduara joan ziren eta baserriz baserri saltzen ibili. Gero Zumaiari arranplara arrimatu eta hiru litroko ardo-zahatoaren truke laurogei arrea antxoa eman zituzten.

31. Karnata nola egiten zen

- **Erref:** GET-002/016
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:25:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Urritik aurrera egiten zen karnata. Antxoa harrapatu, gazitu eta gorde. Papardotarako handiagoa eta bisigutarako txikiagoa. Lantzoia ere erabiltzen zen besterik ezean.

32. Lantzoiarekin ere karnata

- **Erref:** GET-002/018
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Urte baten ez zuten antzo-karnatarik egin eta lantzoia erabili zuten eta ikaragarritzko arrakasta izan zuten bisigutan.

33. Lan egun bat antxoatan

- **Erref:** GET-002/020
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:29:04. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak

Laburpena:

Goizeko seietan irten eta gaueko hamabietarako (gehenez ere) etxean.

34. Antxoa ugari somatu zen aurreko urtean itsasoan

- **Erref:** GET-002/024
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:39:56. **Bukatu:** 00:40:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Flora

Laburpena:

laz atunetan ibilitako arrantzaleek omen zioten antxoa asko markatzen zutela beren aparatuak. Antxoarik ez dagoela? Antxoa hori egongo da nonbait.

35. Lexikoa: gaztetan harrapatzen zituzten arrainak

- **Erref:** GET-002/026
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:43:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

<p>Gaztetan txaluparekin arrantzan hasten zirenean txipiak, brekak, kabrak, txitxarroa... kanaberaz. Eta agureak, pantxoak... moila barruan. Dena galdu da. Pantxotik bisigua sortzen omen da. Allibuta ere antzekoa da baina azpian zerbait du beltza.</p>

36. Ur garbia portuan

- **Erref:** GET-002/028
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:44:30. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Flora

Laburpena:

Ura garbia zegoen portuan, hondoa ere ikusten zen eta arrain asko ibiltzen zen. Kutsadurak dena aldatu du.

37. Gaztetan Paulo egunero itsasora arraunean

- **Erref:** GET-002/030
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:45:58. **Bukatu:** 00:47:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Eguraldi ona zen guztietan egunero joaten zen Paulo arrantzara aitarekin. Beti arraunean. "Aula", lantzoia bezalakoa, harrapatzen zuten dezente. Bost librako otarraina harrapatu zuen behin.

38. Harraldeko arrantza: "txangarrak" eta "sare-amarrak"

- **Erref:** GET-002/032
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:49:35. **Bukatu:** 00:50:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza

Laburpena:

Nekorak "txarrak" ziren garai hartan. Ez ziren harrapatzen. "Txangarrak" eta "sare-amarrak" estimatzen ziren gehiago. "Arraldian" (haitzetan) "barbarak" harrapatzen ziren. Barbarinak-eta motor txikiak.

39. Bizimodua ateratzeko itsasoan lan egin eta lurrak landu

- **Erref:** GET-006/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Sebastian Aranguren Ulazia 1922ko abenduaren 18an jaio zen udaletxe

azpialdeko kale batean. Gurasoak biak getariarrak zituen, biak Askizu inguruko baserrietakoak. Ezkondutakoan gurasoak kalera etorri ziren bizitzera. Bizimodua ateratzeko itsasoan hasi zen lanean aita, baina herriarenak ziren lur-zatiak ere lantzen zituzten, gaiak lortzeko. Arrantzale gehienek zuten lur-zatiren bat.

40. Arrantzale familiek lur-sailak zituzten San Anton mendian

- **Erref:** GET-006/002
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Arrantzaleek lur-zatiak izaten zituzten San Anton mendian. Neguan patata jartzen zen aurrealdean. Bera mutikoa zen eta peontza lanak egitearren (bideak garbitu, ingurua txukundu...) merienda ematen zieten. Beste bat izenak apuntatzen jartzen zuten arkatza hartuta. Arrantzale familia bakoitzak bere lur-pusketa izaten zuen lantzeko. Beraiek patata jartzen zuten, baina denetarik jartzen zen.

41. Askizuko eskolara egunero

- **Erref:** GET-006/006
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Askizura joaten zen eskolara. Gurasoak hangoak zirenez, hara joaten zen eta eguraldi txarra zenean bertan lotan geratu. Eskolan dotrina eta gauza oinarritzakoak ikasi zituzten. Bere kontura askoz gauza gehiago ikasi dituela dio. Errepublika garaian eskolan zegoen gurutzea kendu omen zuten. Doña Maxima errioxarra zen Askizuko irakaslea. Ume-umetan Avelina getariarrarekin ibili zen eskolan. Beste irakasle batzuk.

42. Umetako jolasak: "Kinkinisetan", "Potsetan", karbueroekin...

- **Erref:** GET-006/007
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. "Kinkinisetan": batek makila lurrera bota eta punta sartu; besteak beste makila batekin hura jo eta bota egin behar zuen. "Potsetan": bi makila muturra zorrotzuta urrutira kolpez jota botatzen aritzen ziren. Karburoarekin ere jolasten zuten: lurrean ura eta karburoa jarri, gainean pote bat eta gero hari sua ematen zioten potea airean botatzeko. Karburoa lapurtu egiten zuten nonbaitetik.</p>

Transkripzioa

- Eta, umetan eta, sei, zortzi, hamar urtekin eta, zeintzuk izaten zian zuen jolasak eta? Jolasik eta iten zenduen?

- Bai, honbre! Jolasak bai, jolasak! Jolasak, klaro, jolaseako amorratzen! Kinkilisa, kinkilisa esaten giñoun! Makillak, makillak, egurrak, loriera hontakuak o, ta luzaera hau, e! Luzaera, holako luzaeran bat. Eta, beno, igual da! Altuera zun hau. Zenbat? Zenbat zentimetro? Berroeta hamar zentimetro? [Alturan bat]. Ta ibiltzen giñan, lurren pixkat biundu, ta tak!, zas!, muturra sartu. Ta bestiakiñ, bestiak in behar zun hura jo ta bota. Ta hola. Botatzen zuna, bata besten ezpata botatzen zuna, hura nausi. Ta hola ibiltzen giñan. Hura nausi. Geo beste bat, han-han goyan ibiltzen giñan, potxetan, potxetan. Potxak, potxak. Egur bat, holatxeko egurra, bi muturrak zorrotzu, e, bi muturrak zorrotzu ta makill bat. Behiñe ikusi...

- (Laguna) Bai, bai, bai!

- Ba, hala, jartzen gendun plazan, plazan o zean, egur bat. Hola jartzen gendun makilla, egurra hori eta hura jo behar potxakin. Jo ta hemendikan igual han bazterrea. Ta! Tira pelota! Jotzen baezu, ta makilla botatzen bazuan, harrek iten zuan hartu potxa ta ziuuuu!, bota urrutira. Ta berriz, beste hark hartu ta beste, tira berriz'e zeara, ta hola, holaxe jolasten [gendun]. Ta [...] hau're polita da. Esto... karburuakin, karburuakin. Baten batek esaten zuan, "nik karburua ekarriko diyat", ta piper, piper potua, potua piper potolokua, pote zea hoiek...

- (L) Hoi, peligrasua hoi...

- Bai. Iten gendun xulua in lurrin, e, baatzetan. Biuna, biuna, uretan daude ta. Xulua in ta hara ura bota, ura, ur pixkat. Ta karburua, karburua... bakizu zer dan? Ura bota hara ta gasa azaltzen zuan. Ta poto horrek xulo txiki bat. Poto hori iten zendun zulo horretan sartu, poto hori zulo horretan sartzen zendun, ta kañaberak, makil muturrian papera o zeatu, ta hari su eman. Ta geo, makilla harekin poto haren xulua. Paun! Ta behetik gora ertetzen zan.

- Lehertu.

- Ta nik batian, Patxi Iñarra, Patxi Iñarra. Hola ez bazan esplotatzen ta sua o hola, "paola!, Paola!", esaten gendun, "paola!, Paola!". Patxi Iñarra hori, "Paola! Paola!", hola moitu zun ta jata pum!, ta potuak muturrian jo zuan.

- Eta karburua nundik hartzen zan?

- A! Ostu!

- Ostu?

- Ganbara... Geo, ordun kinkiak...

- (L) Motorra... Kotxian ta argiya iteko...

- Argiya, gabian argiya iteko da. Kinkiak [zea zian], kinkiak. [...] eoten zian, ba! Eta latak, hamar kiloko latak izaten zian, latak. Ta iten zan gaiñea [...] haustu, zetu, bea deseindu iten zan. Baiño, bea zeonian, goor-goorra izaten zan. Ta huai, bruuuuuuu, zea haundiya ateatzen zion, gasa haundiya ateatzen zion.

43. "Apuilla-apuillaka" jolasa

- **Erref:** GET-006/008
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>"Apuilla-apuillaka" ere jolasten ziren. Kuadrillatxoak elkartzeko ziren jolaserako. Taldeak aukeratzeko nola egiten zuten. Talde bat behean eta bestea plazan egoten ziren. "Apuilla" esan eta besteen bila joaten ziren. Markoseneko etxean ezkutatu zireneko anekdota.</p>

Transkripzioa

- Eta beste jolasikan?
- Hori, horrek, horrena...
- Bestela, harrapatzen o korrikan o...
- A, bai, bai. Apuill-apuillaka! Honbre!
- Nola?
- Apuilla-apuille, apuilla-apuille. Beno, eo... Apuill-apuillaka. Ta iten gendun hori, igual zortzi, hamar o dozena bat lagun juntatzen giñan, ta bi, beti izaten zian kuadrillan bi jefianak iten zuenak. Haiek iten zuen oiñakin, hankakiñ, hola, tak-taka! Alkar, hura handik honea ta ni hemendik hara. Tik-tak, tik-tak. Gaiñian harrapatzen zunak, hark nahi zuna apartatu.
- Izenik bazekan... Hanka itia?
- (L) Bai.
- Hanka, hanka aurrena tapatzen zunak, hark [...] hasiera [...]. "Beno, nik hau", ta bestiak, "hau". "Nik hau", ta bestiak "hau". [...] Apartatu, bi grupo iten giñan eta kuadrilla bat plazan, eta bestiak, hor, e, berrogeita hamar bat metro, hirurehun metro behera jartzen giñan. "Apuille!", ta, tas!, kantoian behetik gora, kantoian behetik gora o al zan zea. Ta batzuk iten zuen [...]. Ayuntamientotikan, ayuntamiento aurretik hasten giñan, ta iten zuen, tras!, beste aldea jun, ikustea, ikustea aber noa juten dian. Ta, "beno hi" esaten [...], "beno hi, hi horrea, e! Gu behera [...], hi horrea". Ta behekuak, beheko kuadrillak iten zuan... [...]!, ta anda dio!, juten giñan. Guk badakau batian arratsalde guziya etxe batian [...] barruan sartuta. Markoseneko etxian, Markoseneko etxian. Cuarto o zer zan, entrada...
- (L) Ganbaran, ganbaran.
- Illun-illuna, illun-illuna. Itxin barruan!
- (L) A! Etxe barruan?
- Andriak beak sartu. Ama o... Illun-illuna zan entrada, illun-illuna ta. Hala, "hi", esan ba, "beno, hi, zeara jun dituk, Markoseneko zeara jun dituk [...]". "Apuille!", apuille esaten giñun. "Apuille!", saltaka, da, da, da, ri, ri, ri, sartu gea zea hortan, entrada hortan. Ta Markos xaharra xiestan, siestan, ta gu eskandalu-eskandaluan ta. Piperra, piperra zan geo bea, letxe txarreku ba. Andria berriz on-on-ona zan. Ta hala somatu zunian, "xiiiiii!", hola in zigun, "xii!". "Ixo! Pasa, pasa barrura, pasa barrura", [...], "pasa barrura, pasa". Sartu giñan sei, danak barrura sartu giñan ta Markos hori jaiki ta, "ze ostia horrekin zer dezue!". Hura bere maldiziyuakin! Hau dek hau! Beste kuadrilla akordatu guregatikan. "Hemen zabek! Hemen zabek! Hemen zabek!". Ta gu [...], "eon bertan, eon, beak aspertu [bitartian]". Aspertu in zian arte eon giñan. Geo [...] geu're [...] kanpoa.

- Hori zan apuilla-apuilleka.
- Apuill-apuilleka. Ta izan deu zea're, apuilla-apuilleka moillan barrena, haben fabrikako atze hortan. Orduan fabrika ez zala, jun, arraldea jun, ta hantxe lapa jana, lapa batzuk jan ta, denboa pasan ta, arratsalde guztiya han bota.

44. "Txapelarrastaka" jolasa

- **Erref:** GET-006/010
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:18:55. **Bukatu:** 00:19:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: "Kukuka", "Masisaltoka", "Txapelarrastaka"... jolasak: hanka azpitik txapela ahalik urrutien bota behar zen. Galtzen zuenari zigor moduan txapela lurrera bota eta arrastaka erabiltzen zuten futbolearen bezala.

Transkripzioa

- Geo, pixkat hasten da mollar, txalupakin ta, jolasian ta.
- [...] beste jolasen bat?
- (L) Tokan. Beitu, kukuka.
- A! Baita're, kukuka. Honbre!
- (L) Matxinsaltoka.
- Ta txapelarrastaka, txapelarrastaka ta.
- (L) Txapelarrastaka.
- Txapelarrastaka ta...
- (L) Txapelarrastaka, hoiek, hoiek, hoiek earrak. Geo kontatuko diguk nola zan.
- Txapelarrastaka, txapela, txapelakin hola, ipurdi gaiñetik jarri makurka, ta bota. Ipurdi, hankatartetikan, e! Horrela. Da!, ta, tziiii! Zeiñek motzena, zeñek motzena bota, izaten zuan zein motzena izan, hura, hura kastigatu iten zan. [Jarri] txapela, arrastaka geo. Ti-ta, ti-ta-ta, fubolian bezela, baloia bezela.
- Orduan, norbean hankazpitikan bota...
- Bota, bai.
- Buru gaiñetik, buru gaiñetik.
- Jarri makurtuta, makurtu, ta hola jarri ta, ta! Ta, bueno, makurtu baiño... Ta! hola zeatu ta, txapela urrutiyena [...] hura nausi. Hura nausi.
- Eta galtzen zunak, txapela...
- Galtzen... txapela, haren txapela arrastaka danak, jata tirriki-tarraka, arrastaka.
- Fubolian.
- Bai.

45. "Erretzen ta kiskaltzen" jolasa

- **Erref:** GET-006/012
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:20:55. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

